

# BAT BI HIRU, BANPIRO

Testua etairudiak: **NADIA BUDDE**

Egokitzapena: **XABIER OLASO**

Kartoi gogorreko orriak. 22 x 17,5 cm. 20 orr. 10 €.

**Bat bi hiru, banpiro** (euskara)

ISBN 978-84-9172-052-2. Kartoi-zko orriak.

**Uno dos tres, vampiro es** (gaztelania)

ISBN 978-84-8464-392-0. Acartonados. Prelectores.

**Un dous tres, vampiro ti es** (galegoa)

ISBN 978-84-8464-393-7. Acartonados. Prelectores.

**Un dos tres, vampir és** (katalana)

ISBN 978-84-16804-52-8. Cartró. Pre-lectors.

Bat bi hiru, banpiro.

Rosa Hektor Sugoï, Erraldoi.

Soinekoa soinean, esmokina aldean, berokia darama, piku-armiarma...

Hainbatetan saritua izan den "Bat bi hiru, txiriluru" horren haritik, proposamen berri honek ere liburuaren eta irakurketaren jolas-dimentsioaren alde egiten du, testuaren eta ilustrazioen uztarketa darabil, errima eta erritmoaren bitartez hitzak eta irudiak ezagutzeko.

Liburu honek, nola errepikapenean, hala hainbat egoera eta jokaeratan dauden pertsonaia arraro eta baldarren jolas kateatuan oinarritzen den eskema agertzen du. Oraingo honetan, orriotan ageri den figura-saila bere itxura beldurgarria dela eta nabarmentzen da: banpiroak, mamuak, munstroak eta eskeletoak, lehenengo begiratuan, behintzat, desatseginak edo arrakatsuak diren edo zori txarrari loturik dauden animaliekien batzen dira, hala nola, kaparrak, sugeak, marrazoak, krokodiloak, katu beltzak edo saguzarrak. Nolanahi ere, bete-betean gu harrapatu eta irribarrea eragiten digun begirada samurra, amultsua eta burlatia agertzen dute.

Nola humoreak eta trazu gogorreko ilustrazio koloretsuek, hala borobilduriko bazterrez osaturik dagoen kartoi-zko formatuak ere, liburu soil-soila izatetik haratago, ikasteko eta jolaserako bidea eskaintzen duen objektu erabilgarri bilakatzen dute, aurre-irakurleen eta lehen irakurleen komunikazio gaitasuna garatzeko aukera paregabea eskaintzen duelarik.




- **Gala:** pertsonaien deskribapena.
- **Gomendatutako adina:** 3 urtetik aurrera.
- **Alderdi azpimarragarriak:** egitura kateatua, testu errimatua, erritmoa, musikaltasuna, jolas fonetikoak; animaliak; hiztegia; sormena. "Bat bi hiru, txiriluru!" liburuaren egilearena (Pamiela-Kalandraka).
- **Liburuaren lagina:** <https://issuu.com/kalandraka.com/docs/bat-bi-hiru-banpiro-eusk>

## Nadia Budde

(Berlin, 1967)

Berlingo Arte Grafikoen Eskolan eta Londresko Arte Errege-Akademian bere burua formatzen hasi baino lehenago ere publizitate arloan aritzen zen. "Bat, bi, hiru, txiriluru" bere estreinako album ilustratua izan zen, eta hainbat errekonozimendu aitortu zaizkio lan horri esker. Alemanian bertan ere Linx eta Troisdorf sariak jaso ditu, besteak beste. Bere obrak herrialde askotan itzuli eta argitaratu dituzte.

<http://www.nadiabudde.de>



www.kalandraka.com

comunicacion@kalandraka.com

www.Pamiela.com  
etxea

soltxate@pamiela.com